

SEGMENTAZIOA

NORTZUK DIRA GURE BEZEROAK?

BEZEROEN EZAUGARRIAK ETA SAILKAPENA:

Helpapp ideia, Internet erabiltzen ikasi nahi duen edo bakoitzaren **jakinduria aberastu** nahi duen edonori dago zuzendua. Norberaren jakinduria mailaren arabera sailkatuta dago aplikazioa, bakoitzak Interneten daukan trebetasunaren arabera hain zuzen ere.

- **Bezeroak:** Ideia hau, interneten bidezko oinarrizko jarduerak, erabilera egokia eta bere jakintza hobetu eta euskaraz ikasi nahi duen pertsonentzat dago zuzenduta Beraz, ikasteko prest dagoen edonork erabil dezake. Horrela hainbat motatako bezeroak izan ditzake, inor baztertuta utzi gabe. Bezeroak enpresaren oinarria direnez, beren ezaugarri komunak taldekatu ditugu: oinarrizkoak, sormena eta erabilera aurreratua.

Erabiltzaile bakoitzak, aplikazio honekin helburu zehatz bat duenez, bakoitzaren helburuen arabera sailkatuta dago: **hasiberriak** direnentzat, **maila aurreratuagoa** daukatenentzat, **sareei buruz ikasi** nahi dutenentzat...

Egunerokoan gure inguruan sor daitezkeen arazoek arabera sailkatu ditugu taldeak. Lehenik, badago jendea e-mail bat bidaltzen ez dakiena edo galderak dituen gai bati buruzko kontsultak egitea. Hauek, **oinarrizko** taldean sartuko lirateke. Bigarrenik, "**Sorkuntza**" taldean oso modan dagoen Youtube kanal bat edo bere enpresarentzako web orri bat sortu nahi duten pertsonak daude. Azkenik, ibilgailu hauekin lanean dauden edota kontrolatu egiten duten baina ikasi eta **hobetu** nahi dutenak dira. Gainera, hasieran guk aholkatutako proposamenak daude.

Beharren arabera sailkatuta dago aplikazioa, oinarrizkoenetatik konplexuenetara. Aplikazioa ireki eta honako hau aurkituko duzu:

HASIBERRIENTZAKO AHOLKUAK
OINARRIZKOAK
Erosketak --> nola egin, bideoen bitartez.
Bizum eta beste aplikazio batzuk--> zelan erabili bideoak erabiliz.
Bilaketak non eta nola egin--> bideoen bitartez eta ereduak egiten.
Posta elektronikoa erabiltzen ikasi--> bideoen eta ereduaren bitartez.
Sareen erabilera egokia zelan egin--> adibideetan oinarrituz, bideoen bitartez ikasiz edo laguntza behar izan ezker, txat bitartez.
Egunkariak , aldizkariak... Zelan erabili, non bilatu, zelan bilatu aldizkari, berri edo artikulu zehatz bat zelan bilatu--> bideo zein eredu ezberdinen bitartez.
SORKUNTZA
Profilen sorkuntza--> Sare sozialetan adituak diren pertsonen bideoen bitartez eta haiekin harremanetan jartzeko aukeraren bitartez baita ere.
Blog-a --> Sare sozialetan adituak diren pertsonen bideoen bitartez eta haiekin harremanetan jartzeko aukeraren bitartez baita ere.
Webgunea / Aplikazioak --> Jada aplikazio bat edo negozio bat Interneten bitartez sortu duen pertsona baten aholkuak eta ideiak eta berarekin harremanetan jartzeko aukera
ERABILERA AURRERATUA
Mekanografia --> bideo batzuen bitartez eta joko desberdinen bitartez

Hobetzeko **aholkuak**--> tutorialen bidez, eta txat-aren bidez behar izanez gero

Arazo teknikoen **konponketa**--> bideo ezberdinen bitartez era sinpleago batean eta zailtasunak edukiz gero, Enekorekin (teknikoarekin) harremanetan jartzeko aukera izango dute.

Segurtasun aholkuak--> bideo ezberdinen bitartez